



Ref.:

SEGURTASUN SAILA
Segurtasun sailburuordetza
Trafiko Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD
Viceconsejería de Seguridad
Dirección de Tráfico

1/2024 INSTRUKZIOA (TLB-1/E-1)

GAIA: 8/2016 Instrukzioan jasotako konfigurazio euro-modularreko taldeei zirkulazio-baimen berezia emateko parametroak aldatzea

Badakigu azken bost urteetan zirkulazio-probak eta -entseguak egin direla, gehienez 32 metroko luzera eta 72 tonako masa-baimendua duten konfigurazio-euro-modularreko ibilgailu-taldeekin (EMS), bide-segurtasuna kaltetu gabe. Entsegu horiek egin dira Ibilgailuen Erregelamendu Orokorraren (IEO) IX. eranskina alda litekeen ikertzeko proiektuen esparruan, EMSen parametroak adierazitakoaren arabera alda litezkeen aztertzeko.

Orain dela gutxi, eta entsegu horietan oinarrituta, DGTk bere Instrukzioa aldatu du aurreko paragrafoan adierazitako gehieneko mugetara arteko EMSei zirkulazio-baimen bereziak eman ahal izateko eta, horrela, EMS horiei aldi batez zirkulatzen uzteko harik eta IEOn IX. eranskinean aldaketa hori sartu arte.

Aurreko arrazioengatik eta errepide bidezko salgaien garraioaren dinamikagatik, komeni da 8/2016 Instrukzioko puntu hauek aldatzea: I. puntua, "Konfigurazio euro-modularra" eta IV. puntua "Baimen bereziaren indarraldia". Horiek Instrukzio honen eranskinean jasotzen den bezala idatzita geratuko dira.

Instrukzio hau sinatu eta hurrengo egunetik aurrera aplikatuko da.

Estibaliz Olabarri González
Trafikoko zuzendaria

Donostia - San Sebastián, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ

Tef. 945 01 87 44 – Fax 945 01 87 50

Este documento es una representación del original disponible a través del **localizador** y la **sede electrónica** indicados al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizkoaren irudikapen bat da, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** eta **egoitza elektronikokoaren** bidez eskuragarri dagoena.



LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T5AE6-WSXE

EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: <https://euskadi.eus/lokalizatzailea> / <https://euskadi.eus/localizador>

SINATZAILE / FIRMANTE: ESTIBALIZ OLABARRI GONZLEZ | 2024/01/12 09:26:56

ERANSKINA

I.- KONFIGURAZIO EURO-MODULARRA

Abenduaren 18ko PRE/2788/2015 Aginduak abenduaren 23ko 2822/1998 Errege Dekretuaren bidez onartutako Ibilgailuen Erregelamendu Orokorren (aurrerantzean IEO) IX. eranskina aldatzen du; eta horren bidez, "konfigurazio euro-modularren" (aurrerantzean EMS) definizioa sartzen da.

EMS horiei zirkulazio-baimenak eman ahal izango zaizkie, baldin eta gehienez 72 tonako masa eta 32 metroko luzera badaukate, eta parametro horiek ezin dira inola ere gainditu.

Konfigurazio euro-modularreko ibilgailu-taldeari, abian duen ordenan, zirkulazio-baimen berezia emango zaio, baldin eta IEOren IX. eranskineko 1. ataleko 1.23 puntuko definizioarekin bat badator. Horrek esan nahi du ibilgailu-taldea 6 ardatz-lerro baino gehiagokoa dela eta modulu bakoitzak bere aldetik ez dituela gainditzeko eranskin horretan kasuan kasuko ibilgailu motarako ezarritako gehieneko masen eta neurrien mugak.

Beraz, konfigurazio euro-modularra honelakoa izango da:

- a) Ibilgailu-talde bat, osagai hauek dituen: "ibilgailu artikulatu bat eta atoi bat" edo "errepide-tren bat eta atoi bat"
- b) Ibilgailu-taldeak 6 ardatz baino gehiago izan behar ditu.
- c) Konfigurazioaren modulu bakoitzak ezin ditu IX. eranskinen kasuan kasuko ibilgailu motarako ezarritako masak eta neurriak gainditu.

IV.- BAIMEN BEREZIAREN INDARRALDIA

Zirkulazio-baimen bereziaren gehieneko indarraldia urtebetekoa izango da, ibilbidea igarotzen den bideetako administrazio titularren batek epe txikiagoa adierazi ez badu.

Hala ere, IEOren IX. eranskinaren aldaketak baldintzatuko du ematen diren baimenen indarraldia; ibilgailu motordunen, atoiaren edo erdiatoiaren gehieneko masa-eta luzera-mugetan eta baimen-araubidean aldaketak ekar ditzakeelako.

Baimenak indarrean dauden bitartean, bidaia kopuruak ez du mugarik izango, eta baimenak barne hartzen dituen ibilgailuekin konfigurazio euro-modularreko talde bat baino gehiago era badaitezke aldi berean zirkula dezakete.